

PRENTSA OHARRA: 2025.07.08

Bikaintasuna Euskal Ikasketetan XV ikastaroak nazioarteko irakaskuntza testuinguruetan euskararen inguruan egiten den kontakizunari helduko dio

- Ikastaroa bihar egingo da Donostiako Miramar Jauregian, EHUren Uda Ikastaroen baitan**
- Lau hitzaldi hartuko ditu ikastaroak, euskararen markaz, hitanoaz, egungo erronka teknologikoez eta ondareaz jardungo direnak, besteak beste**

Donostia, 2025eko uztailaren 8a. – Etxepare Euskal Institutuak, EHUren Uda Ikastaroekin bat eginik, Bikaintasuna Euskal Ikasketetan ikastaroa antolatzen du urtero, nazioarteko testuinguruetan euskararen irakaskuntzan aritzen diren pertsonen formakuntza sustatzeko helburuz. Ikastaroak 15 edizio beteko ditu aurren, eta bihar, uztailaren 9an, izango da Donostiako Miramar Jauregian. ‘Nola kontatzen dugu euskara?’ izenburupean, nazioarteko irakaskuntza testuinguruetan edo, oro har, ingurune eleanitzetan euskara kontatzeko moduari egingo zaio so.

Ikastaro honek euskara eta euskal kulturaren irakaskuntzan dihardutenei eta jardungo direnei lanerako eta gogoetarako bide berriak eskainiko dizkie. Euskara hizkuntza bizia da, baina euskararen zer irudi helarazten dugu gaur egun? Hainbat adituren eskutik, euskara nola eta nondik kontatzen dugun aztertuko da jardunaldian. Hau da, ikuspegi tradizional batetik kontatzen dugun, ala gaur egungo diskurtso, eredu eta estetiken bidez aurkezteko gai garen.

Euskara hizkuntza modernoa al da? Nola hautematen da? Galdera horien eta antzekoen inguruan hausnartuko dute hizlariak, diziplina ezberdinetatik abiatuta,

euskararen iruditeria berreraikitzeko eta gaurkotasunetik kontatzeko estrategiak partekatuz.

Goiz bateko iraupena duen diziplina anitzeko prestakuntza izango da. Euskal ikasketetako irakasleak, marka-adituak, IKTetan eta ondarean adituak ariko dira beren jakintzagaiak aurkezten. Gainera, saiootan euskararen eta euskal kulturaren irakaskuntzan jarduteko funtsezko proposamenak, tresnak, eta metodologiak eskainiko dira, adimen artifizialari buruzko jakingarriak barne.

Irene Larraza (Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria), Monika Madinabeitia (Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria), Jaime Otamendi (Donostia Kulturako zuzendaria), Estitxu Garai (EHUko Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko errektoreordea), Beñat Muguruza (EHUko irakaslea), Urtzi Odriozola (Codesyntax-eko informatikaria) eta Arkaitz Oleak (San Telmo Museoko bitartekaritza arduraduna) izango dira hizlariak.

Euskara eta euskal kultura irakurleen trebakuntza sendotzea xede

Gaur egungo irakurleei – Euskal Herritik kanpo Etxepare Euskal Institutuaren unibertsitate sarean euskara eta euskal kultura irakasten duten irakasleak – edo etorkizunean Etxepare Euskal Institutuak plazaratzen dituen deialdien bidez lan horretan aritzeko asmoa duten etorkizuneko irakurleei bereziki zuzendutako ikastaroa da honakoa.

Etxepare Euskal Institutuak euskara eta euskal kulturaren irakaskuntza sustatzen du nazioarteko unibertsitateetan, euskal ikasketei zabalkundea, sakontasuna eta prestigioa emateko xedez. Gaur egun, Euskal Herritik kanpoko 35 unibertsitatek osatzen dute Institutuak sustatzen duen irakurletza-sare hori, eta 29 dira sare horretan diharduten irakurleak. Ehundura hori indartzeko, ezinbestekoa da irakurleek eta irakurlegaiak trebakuntza egokia jasotzea.

Ikastaro honek, prestakuntza jasotzen eta ezagutzak eguneratzen jarraitzeko aukera eskaintzeaz gain, Etxepare Euskal Institutuak urtero argitaratzen dituen unibertsitateetan euskal ikasketetako irakasleak hautatzeko deialdietan puntuak lortzeko balioko du.

Etxepare Euskal Institutua

Etxepare Euskal Institutua Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Euskara eta euskal kultura eta sorkuntza nazioartean proiektatzeko, eta horien bidez beste eskualde, herrialde eta kultura batzuekin harreman iraunkorrak eraikitzeko egiten du lan. Horretarako, kalitatezko jarduera artistikoak sustatzen ditu, eta kulturaren alorreko sortzaile, artista eta profesionalen mugikortasuna bultzatzen du. Euskal ikasketak ere bultzatzen ditu eremu akademikoan. Era berean, nazioarteko eragileekin lankidetzak sustatzen du, bai kulturaren arloan, bai esparru akademikoan.

Egitaraua

Uztailak 9

9:15 – 9:30 Aurkezpena

- Monika Madinabeitia, Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria
- Jaime Otamendi, Donostia Kulturako zuzendaria
- Irene Larraza, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria

9:30 – 10:10 Euskararen marka

- Estitxu Garai, EHUko Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko errektoreordea

10:10 – 10:50 Hitanoa mundu zaharretik berrirako bidean

- Beñat Muguruza, EHUko irakaslea

10:50 – 11:10 Atsedena

11:10 – 11:50 Euskara adimen artifizialerako prest?

- Urtzi Odriozola, Codesyntax-eko informatikaria

11:50 – 12:30 Euskara bizirik dagoen ondarea

- Arkaitz Olea, San Telmo Museoko bitartekaritza arduraduna

12:30 – 12:45 Atsedena

12:45 – 13:45 Mahaingurua: Nola kontatu nahi dugu euskara?

- Arkaitz Olea, San Telmo Museoko bitartekaritza arduraduna
- Estitxu Garai, EHUKo Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko errektoreordea
- Beñat Muguruza, EHUKo irakaslea
- Irene Larraza, Etxepare Euskal Institutuko zuzendaria
- Urtzi Odriozola, Codesyntax-eko informatikaria

12:45 – 13:45 Itxiera

- Monika Madinabeitia, Etxepare Euskal Institutuko Euskara Sustatu eta Hedatzeko zuzendaria
- Arkaitz Olea, San Telmo Museoko bitartekaritza arduraduna

Info +

Komunikazio saila
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera | Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus